



II. ATALA TXILLARDEGIRI ESKAINITAKO LANAK

>>>

10

TXILLARDEGIREN OMENEZ

Feli Etxeberria, Iñaki Pikabea, Beronika Azpillaga

*Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia eta
Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasleak*
Helbide elektronikoa: feli.etxeberrria@ehu.es

Aspalditik lankide eta adiskide, Jose Luis Albarez Enparantza *Txillardegi* nor den esan beharrik ez dago. Zure aditzea zabala da Euskal Herrian eta baita hemendik kanpo ere. Lan-arlo ugaritan jorratzaile, modu nabarmenean euskararen eta euskal kulturaren eremuan aritu zara. Euskaltzale izugarria zaitugu; hizkuntzalari, nobelagile, ikerlari eta euskal intelektual gisa, zure jardueraren emaitza oparoa ikusi besterik ez dago. Oparotasun horren aurrean hitz gutxitan asko adieraztea ez da eginkizun erraza.

Hasteko, zor handia dugu zurekin euskararen irudiaren berrikuntzan. Ikastolak egoera klandestinitik atera nahi ziren garai haietan, andereñoen eta beste euskaldun askoren burutapenean euskararen irudi zaharkitua eraberritu nahia zegoen; puritanismorako joeraren aurrean, euskara bide modernoagora bultzatzearen premia eta hizkuntza ahul izatetik indarberritze aldera joateko beharra garbia zen.

Euskara baserritarren eta fraideen hizkuntzat hartzen zen garai haietan, artean ere, zu gazte injinerua, gizaseme dotorea, hirikoa eta euskal munduarekin konprometitua zinen, garai hartan gauza aparta. Euskal munduaren irudi zaharra hautsi eta berritzeko eragin handia izan zenuen.

Zure ibilbidea etenik gabekoa da euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekimenean. Euskara ikasi, landu, zabaldu eta ekarpen zientifiko-

aren eremura eramán duzu. Ikasteko handia dugu zure lan dibertsifikatu eta aberatsean.

Ez goaz zure ekarpenen inguruko azalpenak ematera baina, aipagarria da euskara batuaren inguruan egindakoa, bai euskal gramatika arloan eta, baita, ikastoletako material idatziaren ekoizpenean. Ia ezer ez zegoen garai haietarako baliagarri izan zen hura, gaur egun ere, erabilgarri da. Horrenbestez, euskara bidezko eskolatzeko-prozesuan ere erreferentea zara, eta, zer esanik ez, unibertsitatean, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean gurekin irakasle izan zaren urteetan.

Maiz entzun dizkizugu honako hitzak: “Pedagogiako sailean irakasle izanagatik ere, ez naiz pedagogo, hizkuntzalaria baizik”. Hau ulertzeko esan behar da Donostiako Zorroagako egoitzan ginenean, Pedagogiako titulazioaren barne Hizkuntzaren Pedagogia deituriko ibilbidea sortu zela, 1983ko ikasketak-planetan ofizialki onartua. Erabat berria zen hura, gainerako unibertsitateetan ez baitzegoen horrelakorik. Hemen, hezkuntza eta euskararen arteko harremana ezinbesteko jotzen genuen hezkuntza-sarean eragiteko prestatzen ari ziren ikasleentzat. Garbi genuen kompetenziaren teoria hizkuntza-sistemaren aspektu formalez gain, ikuspegi pragmatikoak eta soziolinguistikoak osatzen dutela; hizkuntzaren ikaskuntza-prozesuaz arduratzeak hizkuntzak prozesu sozialekin harremanetan lantzea dakarrela. Prozesu horretan, hizkuntza izaera soziala duen bitarteko gisa ulertzen genuen, eta, beraz, gertaera soziolinguistikoek, kulturek, eta politikoei eragiten diotela. Hortaz zu, Txillar, 25 urte inguru gure artean, irakasle izan zaitugu.

Elkarrekin egindako ibilbide honetan, beste hainbat ekimen akademiko ere antolatu genituen zure ardurapean, esaterako *Hezkuntzaren hedadura hizkuntza gutxituko herrialdeetan*, Galeseko, Finlandiako, eta Laponiako Unibertsitateekin lankidetzan. Intelektual kezkatuaren dinamika erakutsi diguzu, hortaz, Europako esperientziak ezagutzera eman ez eta gurearentzat ekarpenak eginez.

Ezin gara geratu, baina, zurekin izandako lankide-harremana aipatu gabe: zure gertutasuna estimatu dugu, baita zure jarrera eta parte-hartzea ere, nola lan-giroan, hala talde-ospakizunetan. Oroitzapen ugariaren artean, gogoan dugu Amezketan egiten genituen mintegi haietako batean, gaien eztabaida egin, ondorioak atera eta erabakiak hartu ondoren, bertan, afari-merienda eginez berriketa-saio bati ekin geniola. Eta, hara non, gure harridurarako, pianoa jotzeari ekin zenion! eta guk, noski, dantzatzeari.

Egun hartan irakasleak ginen, baina ikasleek ere badute zer esanik zure irakasle-izaeraren gainean. Oroitzapen askoren artean bizi-bizi dugu zure ikasle eta geroago lankide izandakoaren testigantza. Zure ordezkapeneko lehen saioan “-Ni ez naiz Txillardegi” esanaz aurkeztu omen zuen bere burua zure ikaslearen aurrean. Bere hitzetan: “-Ikasleek muturra okertu zuten, nola ez, kaltea ez zen makala; zuk egiten zenituen

Euskaltzale izugarria zaitugu; hizkuntzalari, nobelagile, ikerlari eta euskal intelektual gisa, zure jardueraren emaitza oparoa ikusi besterik ez dago.

Hasteko, zor handia dugu zurekin euskararen irudiaren berrikuntzan.

Euskal munduaren irudi zaharra hautsi eta berritzeko eragin handia izan zenuen.

*Hezkuntza eta euskararen
arteko harremana
ezinbesteko jotzen genuen
hezkuntza-sarean
eragiteko prestatzen ari
ziren ikasleentzat*

*Hizkuntza izaera soziala
duen bitarteko gisa
ulertzen genuen, eta,
beraz, gertaera
soziolinguistikoek,
kulturalek, eta politikoez
eragiten diotela. Hortaz
zu, Txillar, 25 urte inguru
gure artean, irakasle izan
zaitugu*

*Ikasleek sarritan
azpimarratu izan dute
irakasle didaktikoa
izateko izan duzun
bertutea. Makina bat
ikastaro emana zara, eta
zure eskolek beti utzi dute
arrasto handia.*

eskola biziak ordezkatzeko ezinezkoa zen". Hemen erakusten den irudia zu irakasle jantzia eta trebea izatearena da.

Ikasleek oso gustuko zuten Europako zenbait herrien hizkuntza-antolaketa aritzea. Honela jaso dugu ikasle baten lekukotasuna: "Artean, Yugoeslaviar hitz egiten genuen... eta kolonizazioaren zenbait fasez ere bai. Ikasgelan galdera bat egin nizun: "-Zer gertatzen da bertoko agintariekin kanpokoak ezartzen direnean? Azkar eta tinko erantzun zenidan: "-Bertoko agintariekin, kanpoko boteredunekin bat egiten dute." Eman zenigun zer pentsatua, alde batetik begiratu edo bestetik so."

Gainera, beste ezagutza-alor batetik begiratu ere, zugandik jasotako irakasgaietatik ikasle askok azpimarratu dute norberak duen euskalkiaz ere kontzientzia hartu beharraz, eta, besteak beste, azentuaren egitekoaz jabetzea.

Oro har, ikasleek sarritan azpimarratu izan dute irakasle didaktikoa izateko izan duzun bertutea. Makina bat ikastaro emana zara, eta zure eskolek beti utzi dute arrasto handia. Zuk azaldutakoak ez dira ahaztekoak, alde batetik, jakinduri handiko gizona zarelako eta, bestetik, irakatsi dituzun gertaera soziolinguistiko asko eta asko zerorrek bizi izan dituzulako. Ezagunak dira zure anekdota ugari bezain interesgarriak Frantzia, Belgika... izan zinenekoak. Askok eta askok gertaera historikoak direla esango genuke, zu ere protagonista nagusietako bat izan zinelarik. Kontakizun horiek biziki erakartzen zituzten ikasleak eta interes handiarekin jarraitzen zituzten zure esanak. Alegia, zure ekarpenak ikasleen barruraino sarrarazteko trebetasuna aparta da, ezohikoa. Zer esango luke honetaz zure ikasle berezia izan den Jone emazteak? Zure ikasle izan diren guztien aitortpen zabaldua da itzal handiko irakaslea zarela, hori bai, despistatu samarra zenbaitetan, ere bai.

Hitz labur hauen bidez maitasunez eskertzen dizugu zure lana eta zure lagun izatea. Beraz, arrazoi asko, behin eta berriz, zuri Zorion beronenak emateko. Bihotzez eskerrik asko.■